



## 5. DINAMIKA. LAN MERKATUA: LAN IRAGARKIAK

<b>HELBURUA</b>	Enpresek zer eskatzen duten jakitea
<b>IRAUPENA</b>	50' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 5' talde txikietan zatitzea, 25' taldean lan egitea eta 15' bateratze lana)
<b>MATERIALAK</b>	Idazteko materiala Lan iragarkiak (eranskinean adibide batzuk agertzen dira)
<b>GARAPENA</b>	<p>Taldea 4 edo 5 pertsonako talde txikiagoetan zatitu eta inguruko lan iragarkiak banatuko dira. Eranskinean Lanbidetik (<a href="http://www.lanbide.net">www.lanbide.net</a>) lortutako adibide batzuk jaso dira. Ikasleek iragarki bakoitzaren ezaugarriak aztertu behar dituzte, lanpostuaren definizioari, eskatutako prestakuntza eta lan esperientziari, adinari, soldadari, gizarte-etekinei erreparatuz, sexu bati lehentasuna ematen zaion, etab.</p> <p>Ikasleei taula talde txikian betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana gainerako kideekin bateratu, eskaintza horretan zer eskatzen den aztertu eta zer iruditzen zaien adierazi behar dute.</p>
<b>OHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Parte-hartzea</li> <li>✓ Lanbide errealitatea ezagutzea</li> <li>✓ Genero estereotipoak</li> </ul>



<b>Lanpostua:</b>	Ekipo elektrikoen mantentze-lanetako teknikaria
<b>Eskainitako lanpostuaren izena:</b>	MANTENTZE ELEKTRIKORAKO TEKNIKARIA
<b>Eskainitako lanpostuak:</b>	1
<b>Lanpostuaren kokapena:</b>	████████ GIPUZKOA
<b>Esperientzia:</b>	3 urte

#### Oharrak

3 urtetik gorako esperientzia motorreko osagaiak fabrikatzen dituen tailerrean makinen mantentze elektrikorako lanpostuan. Ezinbestekoa: LHII, CNC kontrolak menderatzea (fagor, fanuc, siemens). PLCko eta motorren doikuntzak-erregulazioak. Eskema elektrikoen interpretazioa eta pneumatikako eta hidraulikako ezagutzak. Baloratzeko modukoa: Ingeleseko maila handia. Aldi baterako kontratua, kontratu finko bihurtzeko aukerarekin. Txandakako lanaldia (4. eta 5. txanda).

<b>Lanpostua:</b>	Unisex ile-apaintzailea
<b>Eskainitako lanpostuaren izena:</b>	ILE-APAINZAILEA
<b>Eskainitako lanpostuak:</b>	1
<b>Lanpostuaren kokapena:</b>	████████ GIPUZKOA
<b>Esperientzia:</b>	Urte 1

#### Prestakuntza arautua:

Ile-apainketako teknikaria

#### Eskatutako hizkuntzak:

	Irakurmena	Idazmena	Hitz egitea	Itzulpena	Interpretazioa	Irakaskuntza	Ama-hizkuntza
EUSKARA	GOI MAILA	GOI MAILA	GOI MAILA			Ez	Ez

#### Oharrak:

Ile-apaintzailea behar da ile-apaindegi mistorako. Esperientzia izan behar du lan teknikoetan eta eskuko ile-lehorgailuan. Ezinbestekoa: Euskara menderatzea eta esperientzia deskribatutako lanetan. Hemen bizitzea: ██████████. ESKAINTZEN DA: Urtebeteko hasierako kontratua lanaldi osoan frogaldia gainditu ondoren. Soldata adosteko langilearen balioaren arabera. Berehala hasteko.

<b>Lanpostua:</b>	Etxeko langilea
<b>Eskainitako lanpostuaren izena:</b>	ETXEKO LANGILEA
<b>Eskainitako lanpostuak:</b>	1
<b>Lanpostuaren kokapena:</b>	████████ GIPUZKOA

#### Oharrak:

Garbiketa eginkizunak egitea, esperientzia eginkizun horiek egiten. Hemen bizitzea baloratzeko da: ██████████. Obrako kontratua, urtebeteko iraupeneko, lanaldi osoan.